

ataria

2021-01-29 • 1.361. zenbakia
107.6 fm • www.ataria.eus

Urrezko kondena gozoa





AURKIBIDEA

Iritzia Jone Amonarriz **3**

Elkarrizketa

Maria Longarte Ulazia notarioa **4-5**

Hitzez Hitz Xabier Telleria **9**

Asteko Gaia Incansables txaranga,
mende erdia herriz herri **10-17**

Begirada Grafikoa Xabier Artola **19**

Iritzia Joxe Agustin Arrieta **20**

Iritzia Arantzazu Lizartza **21**

Bertsoa Jokin Sorozabal **22**

Agenda **24-25**

Elkarrizketa Ramon Olasagastirekin
Iñurrategitarak gertuago **26-29**



Azaleko irudia
Incansables Txaranga

ataria

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 83€

ATARIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

bai ezabatzen eta
lana egiten

Bikam

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **TELEFONOA:** 943 65 56 95
KOORDINATZAILEA: Rebeka Calvo Gonzalez **KUDEATZAILEA:** Iban Urdapilleta Alkizaletxe **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46
WEBGUNA: ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 • 687 410 033 • 107.6 FM
PUBLIZITATEA: 661 678 818 • publi@ataria.eus

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:



Tolosaldeko gizarte eragileak

TOLOSALDEKO ATARIA diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altoz, Amasa-Villabona, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa eta Zizurkil.




Gipuzkoako
Foru Aldundia



JONE AMONARRIZ
KOMUNIKAZIO
TEKNIKARIA

Zoriona eta asuna



harkabeen igaro dugu Astelehen Urdina delakoa, urtarrileko hirugarrena, urteko egunik tristen izendatua. Kontzeptu hau 2005ean erabili zuen lehenengoz Sky Travel bidaia agentziak

publizitate kanpaina batean, Cardiffeko Unibertsitateko psikologo ikertzaile bati propio eskatutako sasi-formula bat oinarri. Helburu komertzial argi bat zuen kanpainak; azken urtean erreserbetan izan zuen jaisierari buelta eman eta negozioa indartzea, jendearen balizko depresioa baliatuz. Oinarririk gabeko teoria horren gainean eraiki zuten hamaika arrazoiengatik une zailak bizitzen ari zen jendearentzako irtenbidea: bidaia bat paradisura.

Triste, etsita edota haserre egoteko motiboen leioa zabal-zabalik dagoen garai distopikootan are nabarmenagoa da gizartea hipnotizatzeke eskaintza hori. Nahiz eta, berez, jakin badakigun momentu hauetan falta zaiguna orain ezin dugula inon erosi: aske sentitzea, aitona-amonen besarkada estua, bizitza soziala, amaierarik gabeko hizketaldiak lagunartean, inauterietako parranda bat, familia bazkari bat, ospakizunak, komunitate baten parte sentiarazten gaituzten bilkurak, kontzertu jendetsuak, mobilizazio masiboak... eta ilusioa pizten duten beste hainbat eta hainbat egoera edo plan.

Ez da formula zientifikorik behar goibeltasun honen dimentsioa neurtzeko. Existitzen da eta gudan dago. Giroan usaintzen da. Egiaz, uste dut, oro har, etxetik kanpora jaso dugun heziketan ez digutela erakutsi zoriontsu izaten, ez dizkigutela egoera konplexuei aurre

egiteko tresnak eman, eta horren ondorio ere badela egoera zail hauetan hedatzen ari den tristura, antsietatea eta etsipena; nahiz eta ohituak gauden presio sozialaren inertziak hori guztia estaltzen. Funtsean, bizitza egonkor eta eroso baterako hezi izan gaituzte, eta bizi dugun ziurgabetasunak eskema guztiak irauli ditu.

Zoriontasuna ez da kabitzen kaiola txiki eta bakarti hauetan; gure muga mentalen beste aldean dago zain. Inork ez zuen esan bidea erraza denik. Ez da bidaia bat paradisura. Asunez betetako bide bat da. Eta zoriontsu izateko modu bakarra asun horiekin aurrera

Bizitza egonkor eta eroso baterako hezi izan gaituzte, eta bizi dugun ziurgabetasunak eskema guztiak irauli ditu

egiten jakitea da. Berauek ekidin ditzakezu, bidetik garbitu. Edo kontrara, zure aldeko bilakatu ditzakezu, asunari sustraiaetatik heldu eta sendabelar bihurtuz. Izan ere, beti egongo da hor, gogorarazteko bera sentitu gabe ezingo ginatekeela modu kontziente batean izan zoriontsu.

Hori da bizitza; zoriona eta asuna. Zoriontasuna erdibitzen duen hitz jokoa. Edo sentimenduari osotasuna ematen dioten bi zati ezinbestekoak.

«Herri batean egoteak ematen dizun abantaila da banakako harremana askoz handiagoa dela»

MARIA LONGARTE ULAZIA
NOTARIOA

Hilabete gutxi daramatza Segurako notario moduan lanean. Bere lanbidean gehien betetzen diona bezeroak bulegotik «lasai joatea» da, «testu juridiko konplexu baten inguruan eman diezun azalpenaren ondoren». Gustura dago notariotzaren munduan hasi duen bidearekin.

Imanol Garcia Landa

2019 bukaeran egin zituen azterketak Granadan (Espainia), eta aurreko urtean jaso zuen notario izendapena Maria Longarte Ulaziak (Tolosa, 1989). Segurako notarioaren postua aukeratu ahal izan zuen, eta bertan dihardu lanean pasa den urritik.

Zer moduz doa orain arte Segurako notarioa izatearen esperientzia?

Momentuz oso ondo. Azkenean abentura potolo eta zirraragarria da, eta kontentu nago.

Gipuzkoan, Segura da 1.500 biztanle baino gutxiago izanda notariotza duen herri bakarra.

Historikoki herri bezala izan duen garrantziarengatik mantendu da notariotza bertan. XIV. eta XV. mende-tik, Segurako herria puntu estrategiko bezala kokatu zen Gipuzkoan, eta hamabost bat eskribau izatera iritsi zen bere garaian. Beraz, historian izandako garrantzia horregatik mantentzen dute notariotza.

Berez non daude egun notariotzak, zer herri mota-tan?

Espainiatik datorren agindu bat da eta beraien balorazioaren arabera egindako kokalekuak dira. Adibidez, Tolosaldean, Tolosan bertan daude bakarrik, gut-tira hiru. Villabonak ez du eta Andoainera arte ez dago. Goierri aldera joanez gero, Beasainen, Ordizian eta Seguran daude.

Eta nola funtzionatzen du? Hau da, notario bat behar duzunean nahitaez zehatz batengana joan behar duzu, edo aukeratu dezakezu?

Funtzionarioak gara, alde batetik zerbitzu publiko bat eskaintzen dugulako, zehazki segurtasun juridikoarena. Bestalde, profesio liberal moduan funtzionatzen dugu. Notarioaren aukeraketa, espediente zehatz batzuk kenduta, libre da. Norberak erabaki dezake zer notariora joan. Beraz, edozein joan daiteke bai Segurara edo berak konfiantza duen notario batengana.

Zer espedienteengatik joan behar zara notario jakin batengana?

Adibidez, ezkontzen kasuan. Baita ere testamenturik

egin gabe norbait hil denean, oinordekoak zein diren deklaratzeko; horrelako espedienteen kasuan.

Zer lan izaten dira zuk nagusiki egiten dituzunak?

Lau arlo nagusitan egiten dugu lan. Batetik, salerosketak: hipoteka maileguen baldintzak zehaztea, eta horrelako operazioak. Bigarren bloke nagusi bat da, herentziekin lotuta, testamentuen gaia: aholkularitza ematea eta herentziak tramitatzea, batez ere partikularrekin. Hirugarren alor nagusia, enpresei bideratuta dago: azkenean enpresen mugimendu asko merkataritza erregistroan erregistratu beharra dago, eta horretarako dokumentu publikoak behar dira; enprestan administratzaile aldaketak, estatutu aldaketak, batzordeetako akta berezi batzuk, enpresen sorkuntzak, disoluzioak eta likidazioak merkataritza erregistroan inskribatu behar direnez, notariotik pasa behar dute. Laugarrena da goi mailako aholkularitza juridikoa, bereziki behar gehien duten pertsonen bideratutako aholkularitza: ezindu baten gurasoek, babestu nahi duten patrimonio bat nola kudeatu; pertsona heldu bat ezintasun maila batera iristen denean nola eman boterea bere seme-alabei eta abar.

Bezeroak aukeratzen duen kasuetarako, Segura bezalako herri batean egotea kalterako da?

Bere alde onak eta txarrak ditu. Hiri batean egotean daukazu balizko biztanleria handiagoa da. Herri batean egoteak ematen dizun abantaila da banakako harremana askoz handiagoa dela. Orduan, jendea oso gustura dago hona etortzen denean, bere arreta oso pertsonalizatua delako. Denbora gehiago dugu jendearekin egoteko. Aldi berean, Goierri bezalako eskualde batean euskaraz dakien notario bat izateak jende askok baloratzen du. Ez dago biztanle dentsitate handiko zona batean izatearen abantaila hori, bai-



Maria Longarte Ulazia, Segurako notariotzan. **GOIERRIKO HITZA**

na jendea oso gustura dago harreman pertsonalizatu horrekin. Segurak 1.500 biztanle ditu, baina inguruko herrikoek hona etortzeko ohitura dute, eta hor bai daukagula biztanle potentzial nahiko majoa.

Oposizioak egin behar izan zenituen postua lortzeko, ezta?

Bai. Estatu mailako oposizioak dira, eta zuzenbidean lizentziatua izatea da sartzeko baldintza bakarra.

IRAGARKI LABURRAK

LAN ESKAINTZA

Garbiketa lanak. Tolosan, garbiketan esperientzia duen pertsona baten bila gabiltza. Astelehenetik ostiralera la-

naldi osorako. Gidabaimena izatea ezinbesteko baldintza da. Interesatuek deitu 943 670 626 telefono zenbakira.

Oposizio oso gogorak dira: hainbat azterketa pasa behar dira, tartean ahozkoak.

Urte asko behar izaten dira oposizio horiek prestatzeko, baina zuk bi urtean lortu duzu. Marka moduko bat izango da...

Ez dut ingurukoekin alderatu, baina batz besteko denbora oposizio horiek gainditzeko zazpi urtean dago, gaur egun. Bi urte oso denbora gutxi da batz besteko horrekin alderatuta, baina ez dago sekretu handirik. Dedikazioa erabatekoa izan da, eta ez dut esango eguneko 24 orduak erabili ditudanik, lo egiteko noski denbora behar nuelako, baina ordu luzez ikasi behar da. Zure ingurukoen baldintzarik gabeko babesa izan behar duzu, bestela ezinezkoa da; bide batez, familiari eskerrak emateko aprobetxatu nahi dut honako elkarrizketa. Horrez gain, prestatzaileen lana hartu behar da kontuan. Kiroletan gertatzen den moduan, oposizio batean prestatzaile batek ere lan handia egiten du.

Zuzenbidea ikasi zenuenean notario izatea zenuen helburu?

Ez, egia esan bizitzak bide ezberdinetatik eraman nau. Hasieran enpresen lizentziatura ikasi nuen, eta zuzenbiderako gogoia geratu zitzaidan. Bai ikasten dela zuzenbide zibila eta merkataritzako zerbait ekonomia arloan, baina gabezi bat ikusi nuen hurrengo urteetan. Eta behar horri tiraka, zuzenbidea ikasi nuen; ondoren jakin nuen oposizio eta notarioen funtzionamenduari buruz, eta orduan erabaki nuen notario izatea. Ez nuen txikitatik notario izateko nahia, edo ez dut familian horrelako kasurik; azkenean, esan bezala, bizitzak eraman nau lanbide honetara.

Eta nolatan aukeratu ahal izan zenuen Segurako notariotza?

Oposizio guztietan gertatzen den moduan, zerrenda bat ateratzen da hutsik dauden plazekin, eta notaren arabera aukeratzen joaten zara. Nik zortea izan nuen, argi nuelako etxetik gertu egon nahi nuela. Tolosarra naiz izatez, eta etxera itzuli nahi nuen. Euskal Herrian zegoen plaza

«Jendeak asko eskertzen du bere gauza garrantzitsuak bere hizkuntzan kontatzea»



bakarrenetarikoa lortu dut; beraz, alde horretatik, oso kontentu.

Behin plaza lortuta, epe jakin baterako izaten da?

Plaza horretan egon naiteke nahi adina. Gero, aukera duzu beste plazaren bat hartzeko, erretiroarengatik edo bertako notarioa lekualdatu egin delako libre geratu bada; berriro ateratzen dira hutsik dauden plazak, eta notarioen artean antzintasunaren arabera aukeraketak egiten dira.

Zer berezitasun du zuretzat, hain justu, Segurako notariotzak?

Oso kontentu nago bi aldeetatik. Etxetik gertu egoteagatik, batetik. Bestalde, herri txiki batek ematen dizun aukera horregatik, ikasteko denbora eta jendearekiko harremana, asko eskertzen ditut. Oso jende jatorra dago eta oso ondo hasi gara.

Zuk euskaraz jakiteak eskertzen dute bezeroek, lehen alpatu duzunez.

Legeak eskatzen duena da zure bulegoan euskarazko zerbitzua emateko



Maria Longarte Ulazia, notario kargua hartu zuenean, Iaz, Bilbon. Euskal Herriko Notarioen Elkargoan. **MIGUEL SAN CRISTOBAL**

pertsona bat edukitzea. Notarioa ez bada, langile bat izan behar duzu euskaraz dakiena. Horretaz aparte, jendeak bere gauza garrantzitsuak, herentzia kontuak direla, edo testamentuak, edo seme-alaben gorabeherak, bere hizkuntzan esplikatzea eta kontatzea asko eskertzen du. Bestalde, azkeneko hamar urte inguruan ez da izan inor euskaraz zekiena Seguran, eta hori Goierri edota Tolosaldea bezalako eremu baten-

tzat oso garrantzitsua da. Alde horretatik, bai herritarak eta baita alkatea ere oso kontentu daude. Harrera oso ona egin didate.

Parekidetasuna osasuntsu dago notariotzaren munduan? Aldaketarik izaten ari al da?

Gure promozioan, gainditu genuen artean emakumezko gehiago ginen gizonezkoak baino. Hori gizarte mailan gertatzen ari den joera bat da. Berdintasuna dagoen aldetik, horrelako lanpostuetan gero eta emakume gehiago daude. Egia da gure lanean ez dudala inoiz nabaritu ezberdintasunik emakumezkoa izateagatik: ez dut topatu inor gizonezko bat espero zuenik edo ezberdin tratatu nauenik emakumezkoa izateagatik.

Notarioaren lana seriotasunarekin lotu izan da. Zer du zuretzat erakargarri lanbide honek?

Jendea lasai joatea bulegotik, testu juridiko konplexu baten inguruan eman dion azalpenaren ondoren. Jendeak sentitzen duenean juridikoki baldintza guztiak betetzen dituela, eta berari bideratutako emaitza eman dionela, orduan hor nago norberaren satisfazioa. Medikuaengana joaten zarenean, zer duzun modu xume batez azaltzen badizu, lasaiago ateratzen zara; medikuntzako terminologia bakarrik erabiliko balu, sendatuta joan zaitezke baina ez dakizu zer gertatzen zaizun. Bi-hiru hilabete hauetan landu dugun puntuetako bat hori izan da: testu juridikoak ondo azaltzea eta garbi erredaktatzea.

ATARIAN jarrita Goierri eta Urola Kostako Hitza egunkarietan doan

hilberriak • urteurrenak • eskertzak

Txikia: 110€ • Atarikideentzat: 55€

Handia: 160€ • Atarikideentzat: 80€

Eskertza: 60€ • Atarikideentzat: 30€

Eskelak • ataria@ataria.eus • Tel: 943 65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu. Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu.



**2 eta 3 logelako etxebizitzak garaje eta trastelekuak terraza
zabal eta eguzkitsuak ikuspegi paregabeak mendietara
zatoz eta erreserbatu zure gustuko pisua!**



ANOETA – 28 ETXEBIZITZA



XABIER TELLERIA
GALTZAUNDIKO
KIDEA

«En castellano por favor», oraindik ere

Hautsak harrotu ditu sare sozialetan Tolosako sarreran udaltzainen

kontrol batean adunarrari gertatutakoak. Azkenaldi honetan, antzeko beste kasuren bat izan dugu Tolosako kalean zerbitzari publiko gazte baten aldetik, «*En castellano por favor*» formatuan. Ahalduntze zaharberritua.

Ezer baino lehen, eta gertaera hauek irmo salatzearekin batera, aitortu beharra dago praktika hauek ez direla eguneroko jardunean modu orokorrean ematen Tolosako udaletxean. Ondo aspaldikoa da Euskararen Legea, eta ez dago ukatzerik bere arrastoa utzi duela administrazioan bezala beste esparru publikoetan ere. Edozein kasutan, modu argian eta erabakimenez, dagokionak moztu beharreko jarrerak.

Kasu hauen berri izanda, oroimenak garai ez hain aspaldikoetara egiten digu hegan: Udal Euskara Zerbitzua, aitzindarietako bat, abian jarri zen garaietara; kanpaina haien berritasuna, «Lehen hitza euskaraz», «Lehen erantzuna euskaraz», «Kontuak euskaraz» (orduan ohikoak ziren banku-taloiak euskaraz betetzen ikasteko), etab. Ondoren etorri zen Galtzaundi Euskarra Taldearen sorrera, *Euskaldunon Egunkaria* amets zena paper bihurtzeko kanpaina Tolosan burutu ziren ekimenak, ia erabat erdaldunak ziren inauterietan karroza eta konpartsetan euskara gero eta proportzio handiagoan erabiltzeko bultzadak... Aldeko bilakaera egon dela erabilera neurketek esaten digute. Baina, bueltan-bueltan, holako episodioak agertzen zaizkigu tarteka.

Ez dira zulo iluneko hots bakarrak izan. Oraindik gertaera hauek ez

Hautsak harrotu ditu sare sozialetan Tolosako sarreran udaltzainen kontrol batean adunarrari gertatutakoak

dute justifikaziorik; izatekoan, esplikazioa. Eta ez bakarra. Agian badu zerikusirik administrazioko lanpostuetan, udaletxekoan kasu honetan, ez dela ematen garai batean ezagutu genuen egonkortasuna; enplegatu berrien joan-etorria etengabea da. Gurea-ekin zerikusirik ez duten errealtate soziolinguistikoko zonaldeetatik datozenak askotan. Eta horrek berekin dakar gure herriak eta bere izaerak ez ezagutzea. Erremediatu ezean, nago fenomeno hau handitu egingo dela datozen urteotan gertatuko den erretiro indize altuak eraginda. Adin piramideari erreparatuta, aurreikus daitekeen kontua da.

Bestalde, hezkuntza sare desberdinen defentsan eztabaidarik baden honetan (nor publikoago izan, nork euskalduntzen duen gehiago...) iruditzen zait oker handia egingo genukeela hezkuntzaren funtzioa, hizkuntzari dagokionez, euskararen ezagutza maila gutxienekoa lortzera mugatuko bagenu (eta gutxieneko hori lortzen denik ere ezin esango dugu). Hori baino zerbait gehiago eskatu behar diogu. Eta hezkuntza sistemak, berak bakarrik ez bada ere, tramitezko ezagutza hutsetik haragoko plus bat eman behar die ikasketa aldia bukatzen duten gazteei. Eta

plus horren jabe izan behar dute, ezinbestean, lan mundura salto egitean soldata diru publikotik jaso nahi dutenek. Ikustarazi beharko zaie zentralitatea ez duela behar langile publikoaren erabilera eskubideak, bai zik eta herritarrek administrazioarekin jarduteko egiten duen hautuak; errespetuz eta kontsiderazioz; eta hor ezin dugu amore eman.

Esandakoa: gertaera hauek ekiditeko ahalmena duenak, har ditzala hartu beharreko neurriak.



ORAINDIK EZ ZAIO NEKEA NABARI

50 urte bete ditu Incansables txarangak, eta efemeride hori medio, disko-liburu bat argitaratu berri dute. Egun, bost dira bertan dabiltzan eskualdeko musikariak; horietako lau azken urteetan batu dira taldera. Freskotasuna eman arren, txarangak hobetzeko tarte duela uste dute.

Josu Artutxa Dorronsoro

Inoizko sasoirik gogorrean heldu zaio Incansables txarangari izan zezakeen urteurren gozoena. Urrezko aroa bete du Tolosa, Hernani eta Nafarroako hainbat herri barne biltzen dituen txarangak. 50 urte; erraz esaten da. Urte batetik bestera, kide berriak; astez aste, maila hobea, eta hamarkadaz hamarkada, inoiz ahaztuko ez dituzten anekdotak. Bizimodu propioa duen txaranga baita, zale askorentzat sekulan izan den onena.

1979ko irailean, Bizkaiko herri batera jotzera joateko eskatu zioten Jesus Mari Moneo tolosarrari, orduan aritzen zen tronpeta jotzaileetako batek ezkondu eta taldea utziko zuelako. Ederki asko oroitzen du lehen eguna Moneok. «Hernaniko elkarte batean bazkaldu genuen, eta bertan eman zidaten txarangaren berri». Gaur egun, bera da, Joaquin Ortega *Canario*, txaranga sortu zuen kideetako baten atzetik, txarangan urte gehien iraun duen kidea.



Incansables txarangako kideak, 2019an, Usurbilen. **INCANSABLES TXARANGA**

Moneoren hitzetan, hasierako urte haietan txaranga zuen funtzionatzeko modua ezin da gaur egun duenarekin alderatu. «Oso informala zen dena. Ez genuen ia entsegurik egiten, eta emanaldiak izaten ziren entseguak».

Gerora, 2007an sartu zen Josu Sanchez *Santxorro*, bonbardinoarekin. Honek ere ez du ahazten lehen une hura. Kabi Alai elkartean afaltzera gonbidatu zuten orduko txarangako kideak. «Webgune bat diseinatzea proposatuko zidatela uste nuen, baina berehala ezeztatu ziren nire aurreikuspenak. Partituraz jositako karpeta hartu, eta orduak eta orduak sartzen hasi nintzen etxean», aitortzen du.

Hasiera ezberdina izan zuen Mikel Zelaia *Mirrik*, 2016an. «Txindatak jotzeko deitu ninduten, baina baja batzuk medio, tronboiarekin hasi nintzen». Urte berean batu zen Igor Agirre *Topi*, bonboa jotzera.

8 kide berri, azken 14 urtetan

50. urteurrena bete badu ere, adinean irabazi egin du txaranga. Gaur egun, aspaldian izan duen talderik gazteena du Incansablesek; izan ere, Santxorro, Mirri eta Topi gehitzeaz gain, 2007az geroztik, bost kide berri ere batu dira txarangara, guztiak ere, gazteak. «Geroz eta txaranga profesionalagoa da; urtetik urtera handiagoa da maila», aitortzen du Moneok. «Kalitatea ere oso handia da, eta beraz, txarangara kide berriak batzerakoan ere, kontuan izan behar da zein maila duen. Bestela, gerta daiteke egin beharreko jauzia handiegia izatea, eta horrekin batera, integratze prozesua luzeegia izatea», gaineratzen du Topik.

Santxorroren ustez, profesionalizatzeko prozesu horrek ere eragina izan du aldaketa horiek gertatzeko garaian. «Askoren ustez afizioa izan daitekeena, konpromiso handia eskatzen duen ofizioa da guretzat. Ordu ugari eskaini behar zaizkio, batez ere, udan, eta beraz, musikari batzuek duten lanpostuaren arabera ere, ez da harritzekoa taldea uzteko erabakia hartzea. Eta ez lanagatik bakarrik, badira bestelako mila arrazoi ere: osasuna, familia, norbera eroso sentitzea...».

Bestetik, aldaketa gehiegi egiteak, txaranga duen berezko soinua ere aldatzen duela nabarmentzen du Moneok. «Txaranga batek, musikari ezberdinekin disko bat grabatu, eta gero kalean, beste musikari batzuekin joz gero, berehala nabaritzen da zein den txaranga horrek duen benetako sonoritatea. Gure kasuan, beti saiatzen gara diskoak grabatzen dituen talde bera izan dadila kalean ariko dena. Hori ere bada Incansablesen ezaugarri bereizgarrietako bat».

Balio anitzeko artistak

Txarangari aurpegi berriak gehitzeak, erreperitorioan ere eragina izan duela aitortzen du Santxorrok. «Moldaketa berriak egin dira, eta kalean aurkitu ohi dugun publikoak, eta duten giroak ere, zerbait gehiago eskatzen dutela sentitzen dugu».

Hain justu, Canario aritu izan da partitura berriak egiten; oraindik ere hala dabil hernaniarra. Baina topatu ditu lan horretan erreleboa hartuko dioten bi musikari: Topi eta Mirri. «Incansablesek beti izan du sonoritate jakin bat. Moldaketei esker, hori manten-

tzen saiatzen gara», dio Mirrik. «Errepertorioan ditugun hutsuneen arabera egiten ditugu estilo bateko zein besteko kantuen moldaketak», gaineratzen du.

Topiren ustez, moldaketek ez dute sekreturik, «ez delako orkestra bat, eta bederatzi edo hamar instrumenturentzako egiten ditugulako; ez du gehiagorako ematen». Trikimailu bat ere badu: «Kantu bat moldatzen dugunean, txarangako musikari bakoitzak duen ahalmenara egokitzen dugu, eta ez lortu nahiko genukeen sonoritatara edo ideala den horretara».

Errepertorioko kantu berriak gehitzeak tendentziekin zerikusia duen ala ez galdetuta, honakoa dio Topik: «Behin uda amaitzen denean hasten gara gure beharrak aztertzen. Txarangako kideen sentsazioek ere balio handia dute. Baina, batez ere, publikoarengan positiboki eta negatiboki zein estilo edo kantuk eragin duten aztertzen saiatzen gara. Zerk funtzionatzen duen eta zerk ez». Batzuetan, zaletasunak ere albo batera utzi behar izaten direla gaineratzen du Mirrik. «Kantu hau polita da edo oso gustuko dut. Ados, baina txarangarekin jotzeko molda daiteke? Hori izaten da lehen buruhaustea».

Instrumentu bat jotzearekin nahikoa ez

Mirrik eta Topik, gainera, badute berezitasun edo abilezia bat. Instrumentu bat baino gehiago jotzeko gai dira. «Ondo etortzen da askotan. Batez ere, perkusioko instrumentuak jotzen dituztenek, beste instrumentu bat ere jotzen jakin dezaten saiatzen gara, bakarren batek huts egiten duenean ere, dugun bederatziko talde finkoak aldaketa handirik izan ez dezan».

Aniztasunarena ez dela gaur egungo kontua gaineratzen du Moneok. «Beti saiatu gara horretan. Txarangatik igaro diren musikari asko, oso ondo moldatzen ziren instrumentu bat baino gehiagorekin». Gaur egun, ordea, Incansableseko kideek diotenez, hori ez da txaranga sartzeko baldintzetako bat.

40 egun jarraian jotzen

Edozein musika talderentzat, urtarorik oparoena izan ohi da udara; orduan ospatzen dira festa gehienak. Incansables txaranga ere hala izaten da, edo izaten zen behintzat, 2020ko martxoan COVID-



19aren pandemiak guztia hankaz gora jarri zuen arte. «Iaz, emanaldi oso gutxi egin genituen martxoaz geroztik, bakar batzuk besterik ez, leku finkoetan, gel-dirik geundela joz».

Bestela, ohiko egoeran, urte berean, gutxi gorabehera 80 emanaldi ezberdinetan jotzen dutela diote. Moneok azpimarratzen duenez, puntu horretan lasaitu egin da txaranga. «Izan dira 100 saiotik gora egin ditugun urteak. Urte batean, 120 data ezberdinetan jo genuen, tartean, 40 egunez aritu ginen jarraian jotzen, atsedetik gabe».

Kalera atera aurretik, baina, beharrezkoa izaten da prestakuntza egoki bat. Entseguen bitartez lortzen da hori. 1981az geroztik, neguan, astean behin biltzen dira txarangako kideak. Uda amaitzean, atsedendaldia txiki bat hartu, eta udazkenean prestatutako moldaketa berriak gainbegiratzeko unea izaten da.

Lau furgoneta eta toreatzaile herrena

Leku batetik bestera mugitzeko, gainera, furgoneta bat erabili izan dute. «Oso modu eroso da kide guztiok eta gure instrumentuak garraiatzeko; kontuan



Incansables txaranga, Iruñeko San Fermin festetan. **INCANSABLES TXARANGA**



'50 URTEZ INCANSABLES' DISKO-LIBURUA

DISKOA

- 1. El Zapa.** Kalejira edo martxa, atentatuz hil zuten Zapari, txarangako kide eta lagunari eskainia.
- 2. Leitzako herriari.** 1995ean, musikaz eskertu zioten Leiza herriari, 25 urte bertan jotzen bete zituztenean.
- 3. 30 años.** Korrido mexikar hau 2000. urtean idatzi zuen Canariok, txarangaren 30. urteurrena zela eta.
- 4. Zapatan Rapsody Op. 40.** 2010. urtean, beste urteurren bat. Bals mexikar moduan eta izenburuan zein zati musikal batzuetan agerikoa denez, jende askok maite zuen Zapari aipamen txikia berriz ere.
- 5. Txomin 18-01-1946.** Txomin Castro *Sietemesino* txarangako kide ohi billabonatarrari 2003an eskainitako habanera, zendu zen urtean idatzia.
- 6. Dulce condena de oro.** Jose Francisco Esnaola *Paotxa* txarangako sortzaileetako bati, 2015ean eskainia, bere urrezko ezteiengatik.
- 7. Musika, Lander.** Ainara Ortegak 2017an idatzitako bals perutarra, 26 urterekin zendu zen Lander Arriola bere bikote eta txarangako kide ohiaren omenez.
- 8. Orbagur 50.** Baltsaren neurrian egindako martxa, txarangaren 50. urteurrenean idatzitakoa. Izenburuan Ortega eta Barrenetxea abizenak eta 'agur' hitza ageri dira. «Ez dut uste nire aldetik azalpen askorik behar duenik. Txaranga aurrera doa...», dio Canariok.
- 9. Los Incansables.** 80. hamarkadan idatzitako kalejira, txarangaren izena daramana.

izan behar da, gainera, kilometro ugari egiten ditugula», aipatzen dute. «Orain arte lau furgoneta ezberdin izan ditugu. Ederki oroitzen naiz batekin; lotarako ohatzeak eta kartekin jolasteko mahaia zituen. Txarangaren historiaren parte garrantzitsu izan dira, zailtzarrik gabe», gaineratzen du Moneok. Azken furgonetak, ordea, iazko San Sebastian egunean egin zuen bere azken zerbitzua. «50 urteetara iritsi ginenean, «akabo!» esan zuen», dio txantxetan Topik.

50 urtetan, noski, denetik bizitzea egokitu zaie Incansables txarangako kide ohi eta berriei. Hala ere, Moneok gogoan du sekula ahaztuko ez duen pasadizo bat. «Tafallan geunden, herriaren urteurren festan, zezenketa batean jotzen. Ohorezko itzulia ematen ari zen toreatzailea, publikotik zapiak eta loreak botatzen zizkieten bitartean. Bada, txaranga bonboa jotzen zuenak, bazuen zezenetarako zaletasuna, eta berak ere eskertze modura, zerbait jaurti nahi zion toreatzaileari. Hala, bonboaren mazoa hartu eta hondarretara jaurti zuen, nahigabe, toreatzaileari hankan jo ziolarik. Halako batean, toreatzailea herrenka zihoala ikusi genuen», kontatzen du barre algara artean.

«Txaranga askorentzat erreferente izan da eta da Incansables»

JOAQUIN ORTEGA 'CANARIO'

INCANSABLES TXARANGAKO KIDEA

1970ean, Astigarragako Ergobia auzoko festetan hasi ziren bost musikari. Gerora, taldea egonkortu eta Incansables izena jarri zioten, eta urteen poderioz hartu du txaranga izaera. Mende erdian bizitakoak, '50 urtez Incansables' liburuan bildu ditu txarangaren sorreratik gaur arte iraun duen kide bakarrak; izan ere, badirudi laster agurtuko dela.

Josu Artutxa Dorronsoro

Ez du telefono mugikorrik, eta bere burua XVIII. mendean kokatzen duela dio. Ari-tua bezain aditua da musikan Joaquín Ortega *Canario* (Hernani, 1951). Edozein instrumenturi soinu atera, eta arkatz batekin mirari izugarriak egiteko gai da; guzti hori, harmonia estudiantatu eta goi-mailako musika ikasketak burutu gabe. Azken urtean, baina, txarangarako moldaketa berriak egin ordez, liburu bat idatzi du, gertuko kide askoren laguntzaz: *50 urtez Incansables*.

Liburu bat idazten duzun lehen aldia da?

Bai, baita azkena ere. Sekulako buruhaustea izan da, eromen handia, etsipen uneez betea. Txarangako kide bati aipatzen nion, nola egingo ote duten Bernardo Atxagak eta gainerako idazle guztiek, urtero, liburu berri bat argitaratzeko. Kontuak kontu, lortu dugu idaztea eta txukun atontzea. Nik informazioa idatzi besterik ez dut egin, baina lan handia dago atzetik, maketazioan batez ere. 2020ko udaberrian argitaratu nahi genuen, berez, udako festei begira, baina ezohiko egoera honek guztia aldatu du, eta atzeratu egin behar izan dugu.

Zer-nolako esperientzia izan da?

Musika irakasle baten proposamena izan zen liburua

idaztea; urteurrenaren harira, txarangaren historia nonbait gordeta geratu behar zela aipatzen zuen. Prozesu osoa memoria ariketa sakon bat izan da. Idatzi dudan guztia da gogoratu dudana. Oroitzen nintzenari helduz idatzi ditut testuak, horretarako ez baitut arazorik. Beti diot gorputzak baino hobeto funtzionatzen didala buruak. Jende gehiagoren laguntza izan dut, gainera, itzulpenetarako nahiz maketaziorako.

Liburua oso irakurterraza da, arina eta koloretsua, eta jakin beharreko informazio guztia du.

Anekdotez josita dago, eta beraz, historia ez da sakonki kontatzen. Horrek ere arintasuna ematen dio testuari. Horrez gain, elementu grafiko ugari ditu, inoiz ahaztuko ez ditugun uneetako argazkiak, bisi-tatu ditugun herriak mapan kokatuta, diskografia, txarangako lagun askoren mezuak... Txarangaren historiaren laburpena da, bitxikeri eta omenaldiz hornitua. 50 urtek horretarako eta gehiagorako ematen dute. Gero ezinbestekoa da guztia ondo gogoratzea, baina liburuan bertan idatzi dudan bezala, baten batek zerbait gehiago gogoratzen badu, esan diezadala, eta horrela, ni ere oroituko naiz gerora.

Diskoak, berriz, omenaldi txiki asko biltzen ditu.



Canario, 1996an, txarangaren bosgarren diskoaren grabaketan. **INCANSABLES TXARANGA**

Nik aukeratu ditut abestiak, eta bakoitzak badu zeresan garrantzitsu bat. Diskoak ere, txarangaren historia biltzen du; izan ere, urte ezberdinetan argitaratutako diskoetarako grabatutako kantuak sartu ditugu. Bederatzi kantu dira guztira, eta horietatik bi soilik grabatu ditugu orain: *Dulce condena de oro* eta *Orbagur 50*.

Hain justu, 'Orbagur 50' abestian, despedida bati egiten diozu erreferentzia?

Iñaki Salvador lagunak dioen bezala, «bukatzeko hasiko naiz». Lehenik, barkamena eskatuz, ziur nagoelako norbait edo zerbait bidean ahaztuko zaidala, baina memoriak bere mugak ditu. Eskerrak eman nahi dizkiet familia handi honen parte izanda edo ez izanda ere, gure ibilbidean eta lan hau egiteko asmoz alea jarri duten guztiei.

Agurrak alde batera utzita, nola oroitzen dituzu txarangaren hastapeneko urteak?

Duela 50 urte ez zegoen musikari finkoak zituen tal-

derik, eta herri ezberdinetan musikari ezberdinak aritzen ginen. Ergobiara joateko, bost lagun elkartu ginen. Bi billabonatar, bi hernaniar eta tolosar bat, bakoitza bere instrumentuarekin, ia denak elkarrekin aritutakoak. Handik gutxira, elkarrekin ondo moldatzen ginela eta, ea zergatik ez ginen beti musikari

berdinak aritzen galdetu zigun lagun batek. Gerora, edozein herritarra, boskote bera joatea erabaki genuen.

Erraza al zen herri batetik bestera joatea?

19 urte nituen orduan, nerabe bat nintzen. Txango modukoak ziren guretzat, lehen urteetan behintzat. Entseguak egin gabe joaten ginen; bonboa eta txindatak jotzeko ere, bisitatzen genuen herrian bertan

aurkitzen genituen pare bat lagun.

Han eta hemen aritu ondoren, ezagun egin zineten.

Hasieran, publikoaren onespina sekulakoa zen, gu-reaz gain, ez zegoelako beste talderik. Gure herrie-

«Bukatzen hasiko naiz; eskerrik asko, familia honen parte izanda edo ez izanda ere, gure ibilbidean lagundu diguzuenei»



tan jotzen genuenean, harrera bikaina izaten genuen herritarren partetik. Tabernetara sartu eta gainera botatzen zitzaizkigun. «Txarangen The Beatles dirudizue», esaten ziguten. Garai hartan, musikaz gozatu nahi zuenak, aukera gutxi izaten zituen: herriko musika banda, festetako erromeria edota txaranga.

Gerora, kontua serioago jartzen hasi zela ohartu ginen, egutegia ere beteago genuen, eta beraz, beste ofizio bat izatera igaro zen. Maiztzean hemen, ekainean han eta uztailean hor aritzen ginen: Tolosa, Villabona, Hernani, Bergara, Leitza, Lesaka, Bera, Iruñea... herri horietan gure jarduna gustukoa suertatu zen seinale. Ondorioz, errepikakorra suertatzen zen, baina konpetentzia ere geroz eta handiagoa zen.

Zein motatako publikoa izaten du Incansablesek?

«Duela urte batzuetakoa baino txaranga hobea da oraingoa; gaztetu egin da, eta horrek ere laguntzen du»

Txarangako kide gazteenei askotan esan izan diet gure publikoaren batz besteko adina gertuago da-goela 40tik 20tik baino. Gaur egun, Gatibu, Berri Txarrak eta antzeko taldeen kantuak entzun nahi dituenak, txarangako instrumentuekin entzun ordez, beste modu batera entzun nahi dituela. Nire ustez horregatik aritzen da 15-20 urte arteko gazte gutxi gure atzetik saltoka.

Eta barrutik begiratuta, nolako bilakaera izan du?

Ez du zerikusirik duela hamarkada batzuetako txarangarekin. Ez formatuan, ez kalitatean, ezta seriotasunean ere. Hitzordua 11:00etan jartzen bagenuen, izaten zen lo gertatzen zen taldekiderik. Aipatzen nuen konpetentzia horrek ere eragin du taldearen kalitatean, erreperitorioari eta soinuari dagokionez,

behintzat. Duela urte batzuetakoa baino txaranga hobia da oraingoa. Gaztetu egin da azken urteetan, eta horrek ere laguntzen du; belaunaldi berriek ideia berriak erantsi dizkiote txarangari.

Formalizatzearekin batera, oro har, profesionalizatu ere egin dira txarangak, ezta?

Noski. Lehen ez genuen ordutegi finkorik. Herri bate-ra joan, instrumentuak atera, eta kalean gora eta behera aritzen ginen. Eta ez gu nazkatu arte, herritar-rrak aspertzen ziren arte baizik. Orain, ordea, beste modu batera funtzionatzen du; erabat aldatu da. Kontratazioak egiten dira, ordutegiak lehendik ados-tuz.

Bestetik, esan beharra dago, gizarteak txarangeta-ko musikariekiko duen ikuspegia ez dela guztiz zu-zena. Musikari bikainak aritzen dira txarangetan. Goi-mailako ikasketak eginagatik, ez duzu zertan beti orkestra batean aritu behar. Txaranga batean gustura zauden bitartean...

Errepertorioa garatzeak ere lagunduko zuen.

Bai, baina baliteke ere profesionalizatzeko horregatik garatu behar izatea errepertorioa. Errepertorio au-toktonoarekin aritu izan gara, eta hala gabiltza orain ere. Lehen, kalejirak, fandangoak eta arin-arinak jo-tzen genituen gehienbat. Orain, mota horietako kan-tuak prestatuagoak daude, instrumentu gehiagoren-tzat, eta hortaz, soinua ere hobia eta gustagarria-go da. Horiez gain, mexikar doinuak, rock edo swing estilokoak, kunbiak, pasodobleak... denetik izan dugu eta dugu.

Jo dugun eta jotzen dugun errepertorioaren zati handiena nik egindakoa da, eta asmatu dugun ala ez, jarraitzaileek gustuko duten ala ez, nire errua izango da. Bakarren batek pentsa dezake harroputz bat nai-zela, baina edozein txarangatan aurki ditzakezu nik egindako moldaketak. Horregatik, askotan diot In-cansables ikur edo erreferentzia izan dela txaranga askorentzat. Batzuk etorri izan dira gu entzutera eta grabatzera, gerora, grabaketa horiek entzunez, mol-daketak egiteko asmoarekin.

MOTZEAN

Jotzen aritu zaren herri bat. Hernani, zalan-tzarik gabe. Inoiz ez dut gure txarangaren in-guruan bertako San Joan festetan bezain bes-te jende jauzika ikusi. Txarangako kideak ere harrituta geratzen dira.

Txarangako kide bat. Asko, ez nuke bat auke-ratzerik izango. Bizikidetzat handia izaten da txaranga, elkarrekin jo, jan, bizi eta lo ere egi-ten dugu batzuetan. Hori dela eta, atsekabe handia sentitu izan dut lanagatik edo bestela-ko arrazoi batengatik txaranga utzi behar izan duten askorengatik.

Disko bat. 2001eko *Giro-Bero* eta 2014ko *Omenez*. Bikainak dira.

Errepertorioko abesti bat. *En forma* bezala ezagutzen dena. Glenn Miller musikari estatu-batuarraren *In the mood* kantua ezagunaren moldaketa da.

Bizitako bitxikeria handiena. Denetik izan dugu. Instrumenturik gabe azaldu direnak; 23:00etan danborrada batera jotzera azaldu ordeztu, 11:00etan azaldu direnak. Horiek eta gehiago kontatzen dira liburuan, baina auskalo zenbat geratu ote diren aipatu gabe.

Hain justu, moldaketen kasuan, mailari dagokionez ere nabaritu zen gorakada, ezta?

Nik ez dut inoiz armoniarik ikasi, ezta goi-mailako ikasketarik egin, baina nire kabuz aritu izan naiz beti. Ondo moldatzen naiz horrela. Nire kasuan, txaranga-ko kideen mailaren arabera egiten nituen moldake-tak. Urtetik urtera, osatuagoak eta konplexuagoak dira, txarangaren kalitatea areagotu den seinale. Gaur egun, txarangetan aritzen diren musikari askok, goi-mailako ikasketak dituzte; jakintza handiagoa dute musika garaikidearen nahiz teknologia berrien inguruan, eta beraz, erraztasun handiagoa dute mol-daketak egiteko.



ENGLISH - FRANÇAIS

ON-LINE MATRIKULA LIBREA ZABALIK

Otsailaren 1eko 10:00etatik otsailaren 12ko 13:00etara

36,18 €

Informazio gehiagorako jarri gurekin harremanetan



Hizkuntza Eskola Ofizialak
Escuelas Oficiales de Idiomas

EOI TOLOSA HEO - Paper Kalea, 1 Tolosa
Tfn.: 943 69 75 60
eitolosaheo.hezkuntza.net
info@eitolosaheo.net

HEMEN ZURE IRAGARKIA JOAN DAITEKE

publi@ataria.eus

661 678 818



saridunak

Atarikideentzat lau sarrera ditugu

Imanol Jazz kontzerturako
bi sarrera.

- Olatz Hernandez (Tolosa)

Otsailak 3, 20:15,
Leidor antzokia (Tolosa).



Konpromisoa antzezlanerako
bi sarrera zozkatuko ditugu.

- Josetxo Azpetia (Villabona)

Urtarrilak 31, 19:00,
Gurea antzokia (Villabona).



ATARIA jarrikoda harremanetan



harpidedun izateak badu saria saridunak

1 ALBAOLA ITSAS KULTUR FAKTORIA

Familiarentzako sarrera
(bi nagusi eta ume bat)

- Inaxio Urreta (Villabona)



albaola.com • Pasai San Pedro • 943 39 24 26

Bertaratu aurretik deitu museora.

2 EKAINBERRI

museoa

Bi laguntzako
sarrera bikoitza

- Lurdes Oiarzabal (Ibarra)
- Jose Ramon Pagola
(Tolosa)



ekainberri.com • ZESTOA • 943 868811 • info@ekainberri.com

Bertaratu aurretik deitu museora.



Xabier Artola Zubillaga artzubi.eus
OLATUAREN ZAIN?



**JOXE AGUSTIN
ARRIETA**
ERRETIRODUNA

Tolosatik Ipar Amerikara

Ameriketako Estatu Batuek presidente berria dute, eta kezkatzen nau Ipar Amerikako gizar-tean sortu diren ezegon-kortasunak eta haserreak. Ez dakit une bateko birus bat den edo geratzeko datorren zerbait, ez bakarrik han, baizik eta hemen ernalduz joan daitekeena. Beti ulertu izan dut demokrazia hezkuntza, tolerantzia eta aniztasun garbiko kontua dela. Ez da jarrera politiko bat, bizitzaren aurreko jarrera bat baizik, gero politikan, Parlamentuan (Kapitolioa Ameriketako Es-

non Biden harrizko estatua berean burua birkokatzen agertzen dena.

Ez da ona ez Kapitolioak ez Legebiltzarrak erasotzea. Badakit garai zaila bizi dugula, baina funtsezkoa da topaketaren eta bizikidetzaren bidetik joatea: langabezia, herritarren segurtasunik eza, kutsadura ekologikoa eta azpiegiturarik eza... konpontzeko eta herri eta gizarte eraikuntza guztion artean bideratzeko, eta horretarako ditugun egitura politikoak errespetatu beharrean gara. Babilio demokratikoak azpimarratu eta zabaldu behar ditugu eta neofaxismoa uxatu. Bizikidetzaren eta

Ez litzateke batere gaizki etorriko Theodore Parker (1810-1860) filosofo eta teologo estatubatuarraren baieztapen hura gogoratzea: «Demokraziak ez du esan nahi ‘zuk adina balio dut’, ‘nik adina balio duzu’ baizik»

tatu Batuetan) eta gizar-teko erakunde guztietan islatzen dena.

Ez litzateke batere gaizki etorriko Theodore Parker (1810-1860) filosofo eta teologo estatubatuarraren baieztapen hura gogoratzea: «Demokraziak ez du esan nahi ‘zuk adina balio dut’, ‘nik adina balio duzu’ baizik». Demokraziaren oinarria da besteek nik izan ditzakedan eskubide eta betebeharrak berberak dituztela. Deigarria egin zait *Der Spiegel*-eko bi bineta, non Trump Askatasunaren Estatuaren burua lepoa moztuta duela agertzen dena, eta bestea,

bakearen aukerak bide berdinetik joan behar dute.

Itxaropena galtzen den azken gauza izaten dela esan ohi da. Ezin dugu inolaz ere «etsi», hau da, «itxaroteari utzi». Zuk, nik eta guztiok pandemiaren ostean ematen dugun erantzunaren arabera izango da dena. Baikortasunez begiratzen ari naiz hasi berri dugun 2021 urte honi, komeriak eta kontu ilunak noski izango ditugula, baina bostekoa emateko gogoia edo besarkada luzatzeko asmoa egi bihurtuko dira. Denok elkarren beharra dugula jakiten dugunean.

‘Primun non nocere’



**ARANTZAZU
LIZARTZA
SAIZAR
HERRITARRA**

Gehiengoak ateak itxi eta abandonatu zaituztegu uste arren, lanean jarraitzen du lehen mailako arretak; doi-doi bada ere. Eta, eskerrak! Izan ere, Atentzio Familiar eta Komunitarioak baditu arreta behar duten zientoka gatazka «pandemonioa» (hots, COVID-19ari pertsonalki jarritako izena) soilik artatzen aritzeko. Argitze aldera, anbulatorioen jardunaz ari natzaizue.

Telefono haria bilakatu zaigu oinarrizko komunikazio lanabes, eta lotsati agertu ohi dira kontsulta arrazoi interesgarriak, ikuspegi mediko-sozial bati dagokionean. 2020ko egun arrunt bat izanen zen, beste egun guztietatik asko desberdintzen ez zen horietako bat.

Hitzordu zerrendako enegarren telefono deia izanen zen: zenbakia markatu eta erabiltzailearen izenari erreparatu nion, deia erantzutean, pertsona horretaz galde egiteko asmoz. Gizonezko baten izena zen.

Ahots fin batek erantzun zuen deia. Zerrendako izenaz itaun egin, eta berak zuzendu egin zidan: emakumezko izen batez deitzeko, arren. Bat-batean, moztu zitzaidan hatsa, uzkuritu gorputz ertzak eta lotsagorritu masailak. Segundo batzuk nahikoak zitzaizkidan kontsulta arrazoia susmatzeko: transexualitatea eta hormonak... edo kirurgia inguruko zalantzak, akaso.

Aurrez-aurreko kontsultan zitatu genuen, badiarelako telefono hariak ase ezin ditzakeen hainbat premia. Lehen aldia zenez horrelako kasu batekin aurkitzen nintzela, etxean, azken tratamendu aukerak, abordai ezberdinak, identitate aldaketa erdiesteko betebeharrak etab. bilatu eta ikastea tokatu zitzaidan (guk ez dakigulako dena...).

Tartean, Nortasun Agirian sexua aldatzeko, eta, beraz, Estatuak sentitzen zaren moduan tratatzeko, hormona-tratamendu bat jaso behar da. Bai edo bai. Eta duela ez askora arte, ebakuntza jasatea derrigorrezkoa zen hori erdiesteko.

Nabarmena da hormona-tratamendu batek organismoan duen eragina, aldatzearen nahas-mahasetik sexu apeta galtzeraino. Kontsultan, horren berri ematea dagokigu, alde onak zein ez hain onak; baina, aldi berean, eskapatzen hain erraza den «Ziur al zaude?!» bat mahai gaineratu gabe. Behar duten azkena, zerorrek ere zalantzan jartzea delako.

Honekin guztiarekin adierazi nahi dudana zera da: bada Hipokrates handiaren premisa bat dioena: «Batez ere, ez kalterik egin». Eta ni zalantzati nabil, ezjakin, zer erabakik eragin ditzakeen albo ondorio gehien. *Primun non nocere*.

Zerrendako izenaz itaun egin, eta berak zuzendu egin zidan: emakumezko izen batez deitzeko, arren




**JOKIN
SOROZABAL**

Pandemia: hain erraza balitz!

Doinua Gure aurreko guraso zaharrak

Ezjakinaren jakinduriak
inon mugarik ez du ta
denok mediku denok jakintsu
datuekin orraztuta
goiko puntatik eta beheraino
denok gabiltza nahastuta
geure okerra zuritzen dugu
besteren faltak puztuta
zenbat dakigun ez dakigula
jakin beharrak ahaztuta





MAGAZINA

Pasahitza

Astelehenetik ostiralera

09:00etatik 13:00etara eskualdeko albisteak, aktualitatea, eguraldi iragarpena, gonbidatuak eta gehiago.



ZINEA

Alain Rekondo

Asteazkenean

Pasahitza saioaren barruan zinea eta telebista munduaren inguruko saioa Alain Rekondorekin.




PODCAST-A

Amalurra

Asteartean

Naturari buruzko saioa Imanol Garcia Landa eta bere gonbidatuekin, 15:00etatik aurrera.



SAIO LIBREAK

Saio libreak

Kolaborazioak

ATARIA IRRATIAN edonork egin dezake bere saioa, horretarako, ataria@ataria.eus helbidera idatzi edo 687 41 00 33 zenbakira deitu daiteke.



Saio guztiak hemen, ataria.eus/irratia-n entzungai

OSTIRALA

PASAHITZA

09:00. Eguraldiaren iragarpena Iker Ibarluzearen eskutik, trafikoa, eskualdeko protagonistak, azken ostirala, kantu eskaintzak eta helduen solasaldia.

PODCAST-A

15:00. Kulturari Begira Irati Saizarren eskutik. Asteburuko agenda.

ZEBRABIDEA

16:00. Magazina.

LARUNBATA

TRIKITIA

08:00. Trikiti musika goizean zehar, eguerdira arte.

ELEAK ETA BELEAK

20:00. Antzerkiari buruzko saioa, Idoia Gereñurekin. Tartean, elkarrizketa.

IGANDEA

TRIKITIA

08:00. Trikiti musika goizean zehar.

HARI NAIZELA

14:00. Bertsolaritzari buruzko saioa, Imanol Artola *felix*-ekin.

MUSIKASI

20:00. Musika klasikoaren tarteak.

ASTELEHENA

PASAHITZA

09:00-13:00. Eguraldia, agenda, zuzeneko konexioak, kantu eskaintzak, iritziaren tarteak, eguneko gaiak eta asteburuko albisteak.

POSTALAK

15:00. Bidaiarien txokoa Iñigo Terradillosen eskutik. Hamabostean behin bidaiari baten istorioak biltzen dira saioan.

ZEBRABIDEA

16:00-18:00. Arrosa sarearen magazina. Euskal Herriko aktualitatearen inguruko saioa, protagonisten iritziak bilduz.

MAILU TA AKUILU

20:00. Ekaitz Aramendiren musikari buruzko saio librea.

AGENDA

ERAKUSKETAK

SORGINAK

EmPoderArte elkarteak eta Tolosako Berdintasun sailak antolatutako erakusketa da *Sorginak!* Otsailaren 6a bitarte.

Aranburu jauregia, Tolosa.

ARGIZAIOLA

Euskal Herriko Argazki Taldeen Federazioak Argizaiola argazki lehiaketa, lehiaketen lehiaketa. Erakusketa ibiltari bat antolatzen da saritutako argazkiekin eta parte hartu duten argazkien aukeraketa batekin. Erakusketa hau 2019. urtean egindako 39. edizioari dagokio. Otsailaren 2a bitarte.

Aranburu jauregia, Tolosa.

GIZONAK, EMAKUMEAK ETA TXOTXONGOLOAK. UNIMA:

TXOTXONGOLOARENTZAT ETORKIZUNA SORTZEN ETA SORTZEN

Topic-ek aldi baterako erakusketa berri bat inauguratu du. Maiatzaren 30era arte egongo da zabalik, *Gizonak, emakumeak eta txotxongiloak*. UNIMA: *txotxongiloarentzat etorkizuna sortzen eta sortzen*. Izenburuak Henryk Jurkowskiren saiakerari egiten dio erreferentzia, 1979an argitaratu baitzen UNIMA (Txotxongiloen Nazioarteko Batasuna) elkartearen 50. urteurrenean.

Guztira, hainbat teknikaren 75 txotxongilo erakutsiko dira.

Topic, Tolosa.

MUNDUARI ITZULIA

Munduari itzulía erakusketa. Urtarrilaren 30a arte.

Plazida Otaño liburutegia, Zizurkil.



OSTIRALA

URTARRILAK 29

BALIARRAIN

HITZALDIA

18:00. *Ekologista naiz baina...* hitzaldia Gorka Egiarekin. Izena emateko: udala@baliarrain.eus edo 680 399 133. Eserleku mugatuak, udaletxean.

TOLOSALDEA

AZKEN OSTIRALA

Hilabeteko azken ostirala izanik, euskal presoek eskubideen aldeko elkarretaratzek izango dira herriz herri, plazaz plaza.

ZIZURKIL

BILERA

18:00. Zizurkilgo Plaza Etxeberri eraikinari eman beharreko erabileraren inguruko bilerak bideratzen ari da Herribizigune elkarteak. Plaza Etxeberri eraikineko beheko solairuan egingo dute hurrengo bilera.

LARUNBATA

URTARRILAK 30

IBARRA

KONTZERTU AKUSTIKOA

18:00. Zetak taldearen kontzertu akustikoa. Belabieta kiroldegian izango da kontzertua eta sarrerak kultur etxean jaso daitezke. Belabietako ateak 17:30ean zabalduko dira.

TOLOSA

ALDAKETALDIA

11:00. *Aldaketaldia* egitarauaren barruan, Tolosan bizikleta-mar-txa egingo da. Trianguloa plaza-tik abiatuko dira parte hartzaileak.



KOTXE-KARABANA

11:00. *Ostalaritza aurrera!* kotxe-karabana. Usabal industrialdetik (pol.14) aterako da.

ELKARRETARATZEA

18:00. *Osasun-hondamendiaren eta askatasunen ezabapenen aurrean, burgesiaren ofentsiba gelditu* lemapean elkarretartzea, Gazte Koordinadora Sozialistak deituta. Udaletxeko plazan.

IGANDEA

URTARRILAK 31

ANOETA

KALEJIRA

12:00. Anoetako txistulari taldearen kalejira.

BERTSO IKUSKIZUNA

18:00. *Erradikalak ginen bertso ikuskizuna.* Sarrerak bost euro. Liburutegian salgai. Emanaldia Mikelasagasti auditorioan izango da.

AMASA-VILLABONA

ANTZERKIA

19:00. Txalo Produksioak taldearen *Konpromisoa*. Joseba Apaalaza, Ramon Agirre eta Zuhaitz Gurrutxagarekin. Sarreraren prezioa: 12 euro. Gurea antzokian.

ASTELEHENA

OTSAILAK 1

TOLOSA

HITZALDIA

18:30. Aldaketaldia egitarauaren barruan, eta Zaldibar gogoratuz, *Ekologista naiz baina* liburuaren egileak, Gorka Egiak, hitzaldia eskainiko du kultur etxean.

OHARRA. Aldizkaria inprentara bidaltzerako indarrean zegoen eskualdeko agenda da honakoa. Jakina denez COVID-19ak unean uneko aldaketak sortu ditzake.

ZINEMA



BABY

Larunbata, igandea eta astelehena (19:00)
Leidor, Tolosa.



MANUAL DE LA BUENA ESPOSA

Larunbata eta astelehena (19:00).
Gurea, Amasa-Villabona.



ELFKINS

Igandea (16:00).
Leidor, Tolosa.

«KONTATU NAHI GENUEN HORREKIKO LEIAL IZAN GARA»

RAMON OLASAGASTI
KAZETARI ETA IDAZLEA

‘Iñurategi Anaiak - Mendiari Bihotz Emanak’ komikia kaleratu berri dute Ramon Olasagastik eta Cesar Llagunok, Sua argitaletxearekin. Bertan, Felix eta Alberto Iñurategi anaien mendizaletasun ibilbidea bildu nahi izan dute.

Leyre Carrasco

Kalean da jada Ramon Olasagastik eta Cesar Llagunok ondutako azken lana: *Iñurategi Anaiak - Mendiari Bihotz Emanak*.

Euskal mendizaletasunaren historian aparteko soka-da izan da Felix eta Alberto Iñurategik osatutakoa. Zoritxarrez, Gasherbrum II, hamabigarren zortzimilakoa elkarrekin igo eta gero, beherakoan istripua izan eta hil egin zen Felix. Bere heriotzaren ondoren, Baltistan Fundazioaren eskutik, altuera xumeagoan gailur zailagoak ere bilatu dituzte, Hushe ibarreko baltiarren bizimodua zertxobait duintzea, besteak beste.

Lan berri honetan, errealtatea eta fikzioa uztartu dute Olasagastik eta Llagunok, kirol arloa alde humanitarioarekin nahastuz. Horretarako, Felipe H. Navarro komikigilearen laguntza izan dute ilustrazioak koloretzatzeke, eta Ander Izagirre ere itzultzaile lanetan aritu da gaztelerazko bertsoia sortzeko. Orain ordea, ingelesezko edizioarekin martxan jarri dira, Iñaki Mendiguren eta Sarah Turtle itzultzaileen laguntzarekin.

Noiz eta nola sortu zitzaizuen komiki honekin haste-ko ideia?

Komiki hau berez bilduma izan nahi duen eta asmoa duen bigarren kapitulua da. Jabier Baraiazarran, Mendi Film jaialdiko zuzendariak proposatu zigun Cesar Lla-

gunori eta bioi duela hiru urte inguru. Euskal mendizaletasunaren historiako pasarte edo gertaera esanguratsuak komikian jasotzeko. Duela bi urte berriz, *Everest, herri oso bat gailurrean* lehen komikia kaleratu genuen, eta hura izan zen Martin Zabaletaren espedizioa, euskaldunek lehen aldiz Everest gainera jo zutenean. Iñurategi anaiena berriz, bigarren kapitulua izan da, eta kapitulu honetan ere Baraiazarra berak egin zigun proposamena. 80. hamarkada ondoren, iruditzen zitzaion Felix eta Alberto Iñurategik 90. hamarkadatik aurrera, markatutako garaia izan zela nabarmenena eta ni ere bat nator berarekin. Hortaz, Cesar eta biok lanean hasi ginen bigarren lan honekin, eta lan honek pasa den abenduan ikusi du argia.

Gutxi gorabehera, pandemia garaian hasi zineten lanarekin, ezta?

Lehenago hasi ginen, baina hor gertatu zen Cesar master bat egiten aritu zela, eta orduan, berak ezin izan zuen bete-betean hasi ia maiatzera arte. Noiz-behinka biltzen ginen, gidoia finkatuta utzi genuen eta zirriborro batzuk ere egin genituen. Baina zirriborro fase horretan geratu ginen maiatzera arte, eta maiatzean bete-betean hasi ginen biok lanean. Orduan hirugarren lagun bat batu zitzaigun taldera, Felipe H.



Navarro, madrildarra, bera ere komikigilea eta koloretzatzen oso trebea. Maiatzaz geroztik, hirurok eskuz esku aritu gara lanean. Gainera, komikia berez euskaraz sortua dago, baina gaztelaniazko itzulpena Ander Izagirrek egin du, eta Izagirrek oso lan polita egin du itzulpena egiterako garaian. Bertan ere nabarmentzekoa da Albertoren presentzia momenturo izan dugula; hau da, lan egiten ari ginen bitartean bera gure ondoan egon da. Hori lan egiteko garaian asko eskertu dugu.

Nola eragin dizue pandemiak tarte horretan?

Ezin izan dugu nahi beste bildu. Itxialdian bakoitzak bere etxetik egin behar zuen lana, telefonoz edo bideo-deiaz hitz egiten genuen, eta alde horretatik lana eusten saiatu gara. Egia esan, ez zigun hainbestearaino eragin. Azkenean, Cesar Bilbon bizi da, ni Tolosan bizi naiz eta urruntasun horrek ere biltzeko nahi aukera ez digu ematen. Beldur gehiago izan genuen Durangoko Azoka edo Mendi Film jaialdia aurrera eramateko aukera egongo ote zen pentsatzean. Azkenean, Mendi Film da argitaratzaileetako bat, eta bertan gure genuela komikia egotea nahi genuen, noski. Beldur gehiago sortzen zigun horrek, lan egiteko moduak berak baino.

Bertan, Felix eta Alberto Iñurrategi anaaien ibilbidearen inguruko istorioa kontatzen duzuela aipatu duzu. Zergatik aukeratu zenituzten Iñurrategi anaiak?

Iruditzen zait Felixek eta Albertok 90. hamarkadan, justu oraintxe 30 urte igaro dira, Himalaiara lehen espedizioa egin zutela, eta hasiera-hasieratik mendira egiteko modu bat ekarri zuten. Ahal fisiko izugarria zuten, ahalmen izugarria mendirako, prestakuntza teknikoa ere, eta horri guztiari ordura arte mendian hainbeste egiten ez zena erantsi zioten, hau da, entrenamendua.

Beraiek profesionaltasun hori mendiko jardunari eman zioten, ez bakarrik prestatzeko garaian, hots, entrenamenduetan, gero menditik bueltan ere, ikus-entzunezkoa prestatzerakoan, adibidez. Orokorrean, arlo guztietan mendia koska bat gorago eraman zuten. Mendi bakoitzean ere, pizgarri bat bilatzen zuten. Lehenengo Pumori izeneko 7.000 metroko mendiarekin hasi ziren, 90. hamarkadan. Hori lortu ostean, zortzimi-lakoa Makalu. Hori ere txukun lortu zuten. Hurrengoan, Everestera joan ziren eta gainera, oxigeno gabe. Hasieratik garbi izan zuten oxigeno gabe igoko zirela, eta lortu zuten. Hori haientzat mugarri bat izan zen, goi mendiko plazara atera zirelako eta jende zabalaren begiak haiengan iltzatu zituztelako. Beraiek ere espektatiba guzti horiei ongi eutsi zieten, eta beti saiatu izan dira mendiko gauzak txukun egiten.

Nik uste dut gure garaian miresmen bat sortu zutela, mendian egiteko modu horrengatik eta hona etorritak



koan proiektzioetan erakusten zutenagatik. Gainera, apaltasuna nabarmenduko nuke, hau da, beraien neurria zaintzen bazekiten. Nazioarteko beste alpinista ospetsuen aldean bazekiten Euskal Herria maila apalagoan jokatzeko zuela, ez zuten inoiz beren igoerarik puztu, zegokion maila emanez, eta horregatik, Iñurra-tegi anaiek egindakoa nabarmentzeko izan zen.

Istoria guztiz erreala da edo fikzioarekin jolastu du-zue?

Fikzio bat sortu dugu. Hain zuzen, Felix eta Albertoren ibilbideaz aparte eta Felixen istripuaren ostean Baltistan Fundazioak egindako lana jaso nahi genuelako. Iru-ditzen zait Felixek nolabait Baltistan Fundazioaren es-piritu horretan jarraitzen duela, bere presentzia eta in-darra hor dagoela.

Izan ere, Felixen heriotza sokada horren apurketa izan zen, bi anaiei ibilbide horretan eten izugarri bat izan zen. Baina gero fundazioak pulstu horri eutsi dio eta Felixek bertan jarraitzen du. Beraz, alde hori

ere jaso nahi izan genuen, eta hori biltzeko komikian badago pertsonaia bat pisu handia hartzen duena, Xazia izenekoa. Xazia, Baltistan Fundazioko irakasle bat da, fundazioak ematen dituen bekei esker, bere ikasketekin jarraitu ahal izan duena. Zoritzarrez, nes-ka askok eta askok lehen behintzat ez zuten bigarren hezkuntzan jarraitzen etxeko lanetara, soroko lane-tara edo nekazaritzara dedikatu behar zutelako. Mu-tilek aldiz, askok bigarren hezkuntzan jarraitzen zu-ten.

Beraz, fundazioak egindako lanari esker, hezkuntzan salto handi bat egon da eta beka sistema horren bidez, neska asko beraiei ikasketekin jarraitu ahal izan dute. Gaur egun, han bertako Baltistaneko eta baiarako ira-kasle asko bertakoak dira, eta Xazia horietako bat izan daiteke. Asmatutako pertsonaia da, baina berez, Xazia bezalako irakasleak egon badaude. Han neguan ikas-turtea eten egin da hotz handia egiten duelako, eta Xa-ziak berriz, *Winter Camp* moduko bat egiten du eta gune horretarako materiala prestatzen du umeei era-kusteko Felix eta Alberto nor diren. Fikzio horretan josten goaz, batetik, fundazioak egiten dituen zenbait lan, eta bestetik, Felix eta Albertoren ibilbidea. Ibilbi-dean noski, ez dago fikziorik.

Baltistan Fundazioaren bitartez, bertan dagoen ikus-gegi humanitarioa azpimarratzen saiatu zarete.

Albertoren kezka hori izan zen. Bere apaltasun horre-tan hori esaten zidan: «Ramon, duela 30 urteko kontu hauek nori interesatzen zaizkio?». Nik esaten nion hura bizi izan genuenoi interesatzen zaigula, eta belaunaldi gazteak ere gauza horien inguruko interesa izan deza-keela. Azkenean, Felixek eta Albertok garai bat marka-tu zuten eta Albertok mendi giroan itzal handia eta gazte askorentzat erreferentzia izaten jarraitzen du. Beraz, gazte horiek ere beraiei ibilbide hori ezagutzea nik uste garrantzitsua dela.

Beste alde batetik, arrazoia ere bazuen duela 30 ur-teko kontuez gain, Baltistan Fundazioak egiten duen lan humanitario edo solidario hori erakustea garrantzi-tsua zela. Pintzelada txikiak dira, ez dugu sakon jaso lan hori, baina uste dut bertan adierazten dela bolunta-rioek egiten duten lana musu-truk, eta zenbatetan

duindu den hango jendearen bizimodua; hezkuntza arloan, azpiegiturretan eta abar.

Zein izan da istorio hau sortzearen alderdi errazena edo politena?

Errazena informazioa bagenuela. Nik *Euskaldunon Egunkarian* eta ondoren *Berria* egunkarian mendiko informazioa jorratzen egin nuen lan urte askotan, 93an hasi nintzen, gutxi gorabehera Iñurrategi anaien zortzimilakoa igotzen saiatu ziren garaian. Beraz, haien ibilbidea oso gertutik jarraitu ahal izan nuen. Informazio hori oso eskura eduki dut beti egunkariko hemerrotekan eta nik neuk egindako lanean ere.

Alberto eta Felix oso gertukoak izan ditut; batetik, informazio hori jorratzetik eta bestetik, Alberto gerora ere, elkarrekin izan ginelako kazetari lanak egiten espedizio batean. Informazio iturrien eskuragarritasun horren aldetik lan egitea oso erraza izan da. Politena, jostura ematea izan da. Azken finean, gidoia sortzea lan gozagarriena izan da. Bi alde horiek jostea eta uzartzea, hau da, fikzioa eta Xaziaren pertsonaia sortzea, hori guztia oso polita izan da eta asko gozatu dut.

Eta zailena?

Ni kazetaritza mundutik nator, eta nire idazteko modua oso narratiboa da eta komikia beste hizkuntza bat da. Beraz, esaldiak nahigabe oso luzeak irteten zitzaizkidan. Gainera, bertan agertzen diren bineta batzuk nahiko trinkoak dira. Beraz, neure burua komikiaren hizkuntza horretara errenditzea asko kostatu zait, eta zailena hori egin zait. Uste dut esparru horretan oraindik badudala bide luzea ikasteko, eta hurrengo komiki baterako lagundu didala. *Everest. 1980ko euskal espedizioa*-tik hona bai egon dela bilakaera bat, zerbait ikasi dugu, eta hemendik hirugarrenera ere espero dut zerbait ikasiko dugula.

‘Everest. 1980ko euskal espedizioa’ komikia baino luzeagoa geratu da, ezta?

Bai, dezente luzeagoa. Azken batean, hura izan zen azken harria, bi espedizio izan ziren baina bakarra bezala hartu daiteke; 74ko *Tximist* espedizioa eta 80koa. Ia-ia asmo beraren bi kapitulu izan ziren. Mendi bakarra izan zen, Everest, eta igoera bat. Komiki berri honetan, igoera asko izan dira, ibilbide oso bat kontatu behar ge-

IÑURRATEGI ANAIK

MENDIARI BIHOTZ EMANAK
RAMON OLASAGASTI · CÉSAR LLAGUNA



‘IÑURRATEGI ANAIK - MENDIARI BIHOTZ EMANAK’

SUA - TXINPARTETAN
Ediciones Especiales bilduma.
104 orrialde. Euskaraz.

nuen, eta Baltistan Fundazioaren lan humanitario hori ere jaso nahi genuen. Azkenean, ezinbestean orrialde askoz gehiago atera dira.

Gustura geratu zarete emaitzarekin?

Bai, esango nuke niretzat ere oso lasaigarria izan dela Alberto bera gustura geratu izana. Lanak bere onespena edo onarpena jaso izan du, eta hori ere aintzat hartzekoa da. Azkenean, berak ere komikiaren barruan bere burua lasai ikusi du; izan ere, beraiek inoiz ez dira izan egiten dutena goratzekoa edo puztekoa. Kontrakoa esango nuke, apaltasun horretan mugitu izan dira beti eta ez genuen lorpenen, mugarrien edo balentrien zerrenda bat egin nahi, baizik eta kontatu nahi genuen beraien egiteko eta izateko modu hori. Alde horretatik, Alberto bera eroso sentitu da komikian, gidoian eta kontaeran eta horrek guri ere lasaitasuna eman digu. Emaitza batzuei gehiago gustatuko zaie, beste batzuei gutxiago, baina kontatu nahi genuen horrekiko leial izan gara.



IKER IBARLUZEA
EGURALDI ADITUA

EGU RAL DIA

OSTIRALA

Giro nahasia.

Goizean hodei-

tza handia izango da eta euri zaparradaren bat edo beste izango dugu. Eguerditik aurrera ordea, atertu eta ostarte batzuk zabalduko dira. Haizeak goizean mendebaldetik joko du, egunaren bigarren zatian hego-mendebaldetik finkatu eta indarra hartuko duelarik. Temperatura maximoak koskatxo bat jaitziko dira, 16-17 gradutan joaz goia.

LARUNBATA

Giro kaxkarra. Zerua oso hodeitsu mantenduko da egun osoan eta euri zaparrada batzuk izango ditugu egunean zehar, tarteka mardulak izango direlarik. Haizeak oso zakar joko du mendebaldetik eta temperatura maximoak jaitsi egingo dira, goia 13-14 gradutan joaz.

IGANDEA

Euri giroarekin jarraituko dugu. Zaparradak egun osoan izango ditugu, baina sarriago eta mardulago botako du egunaren lehenbiziko zatian. Bigarrenetan tartekatuagoak eta ahulagoak izango dira. Goizean mendebaldeko haizea zakar ibiliko da. Arratsaldean hego-mendebaldekoa sartu eta ahultzera egingo du. Temperatura maximoak beste koskatxo bat behera egin eta ez dira 12-13 gradutik pasako.

ASTELEHENA

Giro goibela. Egun osoan zerua estalirik egongo da eta euria izango da protagonista. Zaparradak sarri botako ditu eta egun osoan gainera. Ipar-mendebaldeko haizearekin termometroak antzeko balioetan mugituko dira, maximoak 12-13 gradutan geratuz.

ZERBITZUAK

ZORION AGURRAK



ZORIONAK!

Nola pensatu behin eraztuna hatzean jartzen denean, mende Erdiko ibilbide bat lortzea gutxienean.

Biba Pilar eta Inaxio zer poz dugun barreanean! Jarraitu hazten eta ikasten elkarren aldamenean.

Zorionak Inaxio eta Pilar! Ea laster denak elkarrekin ospatzeko aukera dugun! Besarkada eta muxu asko etxekoen partez!

ZORION AGURRAK

FARMAZIAK

URTARRILAK 29, OSTIRALA
TOLOSA

Egunekoa. Eurne Bengoetxea Aiestaran. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

URTARRILAK 30, LARUNBATA
TOLOSA

Egunekoa. Maria Jose Santamaria. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.

URTARRILAK 31, IGANDEA
TOLOSA

Egunekoa. Cecilia Bronte Posada. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.

OTSAILAK 1, ASTELEHENA
AMASA-VILLABONA

Egunekoa. Juana Maria Sanchez Alias. Kale Berria, 34. 943 69 11 30.

EGUNERO GAUEKO GUARDIAKO FARMAZIA: TOLOSA.
LURDES AZPIROZ GALARZA.
LARRAMENDI, 6. 943 67 51 18.

AURREMATRIKULA IREKIA URTARRILAREN 18TIK 29RA




TOLOSAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

ESKOLA EUSKALDUNA, INTEGRATZAILEA ETA BIZIA

**ZATOZ
SAMANIEGO
BISITAZERA**

*Eskaneatu QR kodea
eta hitzartu zurea*



0-18 urte bitarteko heziketa eskaintza publikoa

Informazioa
samaniego-tolosa.hezkuntza.net
943 651 063 / 688 867 570

ikastolak

hezkuntza eraldatzen

Aurrematrikula irekia urtarilaren
18tik 29ra



www.ikastola.eus

ikastolenelkartea

